



Musika Eguberriei ongi etorria eginez.- Udal Musika eskolako kideek Manuel Lekuona kultur etxea Eguberri giroan murgildu zuten asteazken arratsaldean. 'Oi Bethlehem', 'Birjiña Maite', 'Olentzero', 'White Christmas' edo 'Santa Claus is coming to town' doinuak entzun ziren areto nagusiko oholztan. Gitarra, txistu, zeharkako flauta edo biolin taldeek, piano joleek eta abesbatzak euskal, zein nazioarteko Gabon kantez osaturiko emanaldia eskaini zuten. Baina izan zen tarterik doinu klasiko eta ezagunentzat ere. Esate baterako, John Lennonen 'Imagine', Simon eta Garfunkelek ezaguna egin zuten 'Scarborough fair' edo Policeren 'Every breath you take' abestiez gozatu ahal izan zuten emanaldira hurbildu ziren herritarrek. Kantuak lagunduz Eguberrietako irudiak ere ikusi ahal izan ziren pantaila handian. Emanaldi ederra Eguberrien atarian.

4 KULTURA

Lasarte-Oria Kalera Fest jaialdia bihar, egun osoan zehar

Herritarrak kalera irtengo dira bihar, hainbat ekitaldi eta kontzertuz gozatzera. Esna Hadi Kultur Elkartek 'Lasarte-Oria Kalera Fest' jaialdia antolatu du Eguberrien atarian, herriko hainbat taberna, eragile eta Udalarekin batera. Zabala da oso egitaraua, goizean hasi eta gaueko ordu txikietara arte luzatuko dena.



5 HAUTESKUNDEAK

Hauteskunde kanpainaren azken egunak herrian

Etzi egingo dira Espainiako Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak. Alderdi politikoak kanpainaren azken txanpan sartuak dira; herritarren bozka lortze aldera, azkeneko ekitaldiak egin dituzte aste honetan. Asteazkeneko merkatuan izan ziren EAJ eta PSE, lasarteoriarrekin hitz egiten eta informazioa banatzen.

Abenduaren 22an, Gabonetako TXINTXARRI berezia kale-ratuko dugu. Informazioa eskuragarri txintxarri.eus atarian ere

Josue Igeltseritza
Igeltseritza S.L.

606 37 21 05
Atallu pol. atallu, 28 USURBIL
josueigeltseritza@euskalnet.net

Igeltseritza orokorra
Fatxaden estaldurak
Estalkien berriztatzeak
Barruko berrikuntzak
Gremioen koordinaketa

AUKERA PAREGABEA!!

Bideo Lagunak
Etxekotresna elektrikoetan adituak

299€ **299€** **299€**

32" **ROOMBA** xurgagailua modelo 621

BEKO garbigailua 6 Kg. 1.000 Rev. **269€**

BALAY garbigailua 7 Kg. 1.000 Rev. **299€**

12 ORDAINDU HILABETETAN INTERESIK GABE
TIN: 0% TAE: 0%

Neure kabuz



Mailu Arruti

Parisko goi bilera

Munduari gradu bat ala bi gehienez berotzen utziko diogun omen da gakoa orain. Erregai fosilen amaiera zehazten joatea eta prozesu horren kostua nork ordainduko duen noski.

Gu banakook ohiturak aldatu behar ditugu. Batez ere gure osasunagatik baina baita mundua xixko eginda uzten ari garelako.

Garapenaren izenean Oria ibaia apar zuriz estalitako urte haiek datozkit burura. "Ibaia zerri eginda dago baina zer egingo dugu ba, papelerak itxi? Nondik biziko gara? Lanpostuak galduko dira".

Tabakoa uzteko esan ziguten batez ere gure osasunagatik baina baita ere gizarteari osasun arloan kostatzen zitzaionagatik.

Orain petrolio eta ikatza kontsumitzeari uzteko esaten digute gure osasunagatik eta planetaren berotzeagatik.

Eta oraíndik ere egin ahala guztian hor dabilta batzuk Garoña zaharkitu hori ireki nahian.

Etekin lortzeko prozesuan kostu ekonomikoak bakarrik hartzen ditugu kontutan eta hain erraz kontabilizatzen ez diren kostuak sartzen ez ditugun bitartean, esan nahi da: kostu ekologikoak, osasun kostuak, emozionalak, giza harremanei dagozkienak e.a, errazagoa izango da zerbait errentagarria egitea. Hori bai, epe motzean. Itxurazko herri bat, mundu bat edo planeta bat utzi nahi badiegu ondorengoei, epe luzera eragiten duten kostu horiek ere sartu behar ko ditugu.

Zenbat kosta ote da Pariseko goi bilera hori?

Akordio loteslerik lortu ez duen goi bilera ponpoxo hori?

Hainbeste mandatarik planeta ez berotzeko zer neurri erabili ote dituzte Parixen bilduta zeuden bitartean?

Zorion agurrak



Maite

Zorionak eta muxu handi bat senarra eta semearen partez. Ondo pasa eguna.



Odei

Zorionak Odei, 10 urte! Oso ondo pasa! Muxu bat familia guztiaren partez. Ondo pasa!



Jose Luis

Zorionak familia eta lagunaren partez.



Eneko

Zorionak zure seigarren urtebetetzean txapelduna, oso ondo pasa!!! familia partez.



Manex

Zorionak zure bigarren urtebetetzean txokolatzeko muxuak Ekaitzen partez.

Zorion agurrak bidaltzeko 943 36 68 58, txintxarri@txintxarri.info edo txintxarri.eus web orrialdeko formularioa erabili dezakezue.

Azoka txikia

Higiezinen Eskaintza

- Lokal komertziala alokatu edo saltzen dut, 40 metro karratu. Sasoa eta auzoan, Uzturre kalea 7 izkina. Oso argitsua, dendaostea eta komuna du. Salgai 45.000 eurotan edo alokairuan 300 euro hilabetean. Interesatuak galdezu Marianengatik, 685 780 857.
- Pisu bat alokairuan Usurbilen, 3 gela, egongela, sukalde eta 2 komun. 3 balkoi, dena kanpoaldera. Tlfnoa: 658 756 344.
- Lokala saltzen da Uistin kalean, 11 zenbakia. Bi pisu ditu: Igoa 64 metro karratu, baxuak 72 metro karratu. 666 409 194.
- Herriko bikote gazte bat alokairuko pisu txiki edo estudio baten bila dabil. 699 377 564.

Salerosketa

- Baserriko kutxa salgai. Egoera onean. 688 615 916
- Emaztegaia eta almirantearen jantzi bana jaunartzeetarako. Merke. 943370092

Lan-eskaria

- Gizona eskaintzen da adineko pertsonak zaintzeko, externo edo interno gisa lan egiteko eta baita tabernetan kamarero gisa jarduteko ere. 677 34 23 58.

Bestelakoa

- Euskara, ingelesa edo latina irakasten dut, zure etxean bertan. Eskolak indartzeko ere prest. Ekonomikoa. 600 766 068.

Heriotzak Jaiotzak

Jaiotzak

- Meerab Naz, azaroaren 22an.

Heriotzak

- M^a Asunción Iraola Urruzola, abenduaren 16an, 81 urte zituela.
- Maria Teresa Romera Goenaga, abenduaren 16an, 69 urte zituela.
- Blas Rezabal Mendizabal, abenduaren 15ean, 82 urte zituela.
- Juan Morga Lazcano, abenduaren 10en, 81 urte zituela.



Farmazia Goardiak

EGUNEKOAK: 09:00-22:00

Ostirala, 18 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Larunbata, 19 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Igandea, 20 Lasa, Kale Nagusia 42 atzea	943 361774
Astelehena, 21 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Asteartea, 22 Gandarias-Urbe, I. de Loyola 9	943 019521
Asteazkena, 23 De Miguel, Kale Nagusia 32	943 371151
Osteguna, 24 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Ostirala, 25 Orue, Jaizkibel plaza 2	943 362652
Larunbata, 26 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Igandea, 27 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529
Astelehena, 28 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Asteartea, 29 Acha-Orbea, Hipodromo et. 6	943 363549
Asteazkena, 30 Urbistondo, San Frantzisko 1	943 366567
Osteguna, 31 Gil, Kale Nagusia 24	943 361529


GAUEKOA: 22:00-09:00, egunero
Echeveste Elozegi, Elkano 9
Hernani, Tel.: 943 552087

Larrialdi telefonoak

Osasun Zentroa	943 007960
DYA	943 464622
Gurutze Gorria	943 363953
Udaltzainak	943 362442
Ertzaintza	943 288888
SOS Deiak	112

Diruz laguntzen duten erakundeak

Babeslea



LASARTE-ORIA
UDALA

Txintxarri ez du bere gain hartuko iritzi-artikuluetan edota irakurleen gutunetan adierazitakoaren erantzukizunik.

Laguntzailea



Argitaratzailea:

Ttakun Kultur Elkartea
Geltoki kalea 4
20160 Lasarte-Oria
943 366 858/943 371 448
G-20407557

Legezko gordailua:

SS513/93
ISSN: 1134-0053

Inprimategia

Zeroa Multimedia, S.A.

Aleak zenbakiko: 7.800

txintxarri

Eredakzioa:

Nerea Eizagire, Martín Vicioso, Inigo Gonzalez.

txintxarri@txintxarri.info

Publizitatea: Arantxi Zulaika
publizitatea@ttakun.com

Laguntzaileak:

Unai Muñoa, Gorka Lasa, Ane Labaka, Mailu Arruti, Asier Odriozola, Maider Seguro, Gorka Alvarez, Jexux Artetxe, Edu Galardi

Informatikoa:

Xabier Amadoz

AISIA



San Tomas azokako talogile taldeko emakumeek taloak nola egin erakutsi zieten Amaraun Kluba eta Solaskide egitasmoak kideei.

Gabonetan ekintzak etxeko gaztetxoentzat

Talo tailerra eta ipuin-kontalaria izan dira aste honetan

Amaraun Klubeko lagunak ekintzak ekintza dabilta. Aste honetan, taloak nola egin ikasi dute, baita maitasuna nola kudeatu ere. Hurrengo astean, Olentzeroren etorrera prestatzeko ekintzak izango dituzte. Baina ez dira ekintza berezia izango duten bakarrak, Gazte Klubeko lagunak ere abenduaren 22 eta 23ean flashmoba grabatuko baitute.

TXINTXARRI

San Tomas eguna gertu dela eta, Ttakun K.E.ko Amaraun Kluba eta Solaskide egitasmoen eskutik, lasarteoriatar multzo batek taloak egiten ikasteko aukera izan zuen asteartean Arrieskalleta elkartearen.

Bi saiotan, ume zein helduak bildu ziren elkartearen eskuak irinetan sartu eta San Tomas azokako talogile taldearen laguntzaz norbere taloak egitera.

Arratsalde atsegina pasa zuten eta gustura aritu ziren, nahiz eta batzuei kostatu egin zitzaizkien arto irina ondo zapaltea.

Dena den, lana ongi egin eta gero jaso zuten sari bikaina: txistorra talo txokolate edota gaztarekin.

Maitasuna kudeatu

Bestalde, astelehenean, sentimenduak kudeatzen laguntzeko ipuin-kontaketa bildumaren azken saioa izan zen Amaraun Ludotekan.

Haserrea eta beldurraren sentimenduak landu ostean, maitasunaren txanda zen.

Horretarako, 'Ezetz asmatu zenbat maite zaitudan' liburua irakurri zuten lehenik. Haurrek adi-adi jarraitu zuten kontakizuna.

Jarraian, ipuinean entzundakoa landu zuten eta horretarako jolasa eta eskulanak egin zituzten. Eta etxera lasaijoateko, masaje batekin amaitu zuten saioa.

Olentzeroren harrera

Hau guztiaz gain, Amaraun

eta Gazte Klubeko lagunak Eguberrietako oporrak ederki hasteko ekintza bereziak izango dituzte.

2 eta 8 urte arteko txikiek bi tailer izango dituzte, Olentzeroren etorrera jaialdiko kale jirari begira. Baina antozaileek nabarmendu bezala, horrek ez du esan nahi, kale jirara joan ezin dutenekin ekin-tza hauetan parte hartu ahal ezin dutenik.

Abenduaren 22an, asteartean, kriseiluak egingo dituzte eta asteazkenean, berriz, 2016 urterako ametsak.

Hauek egiteko materiala etxetik eraman beharko dute txikiek. 2016 urteko ametsak prestatzeko kartoizko kutxa bat eraman beharko dute; kriseiluetarako, aldiz, hurrengo egunetan zehaztuko da erabili beharreko edukiontzia.

Flashmob

Egun beretan, abenduaren 22 eta 23an, Gazte Klubeko gazte-txoek Euskararen Egunean, abenduaren 3an, eguraldi txaragatik bertan behera geratu zen flashmobaren grabaketa egingo dute.

Esne Beltzaren 'Euskaraz bizi nahi dut' doinuaren erritmora egingo dute dantza hurbiltzen diren gazte guztiek.

Ekintzak goizez

Haurrak oporretan daudela aprobetxatuz, hiru ekintzak goizez izango dira.

Amaraun Klubeko tailerrak 11:00etatik 12:30era izango dira Ludotekan.

Gazte Klubeko Flashmobe-ko ordutegia zehaztu gabe dago oraindik. Hala ere, hitzordua Ludoteka kanpoan izango dela aurreratu dute antolatzaileek.

KULTURA

Alboka abesbatzaren Gabonetako kontzertua

Bihar, abenduak 19, 20:30tik aurrera Alboka Abesbatzak urtero bezala Gabonetako kontzertua eskainiko du Ama Brigitarren komentuan.

Abesbatzak Montse Latorre zuzendariaren gidaritzapean, nazioarteko, zein euskal gabon doinuak abestuko ditu, Amaia Dorronsoro piano jolea lagun dutela. Hala nola, John Rutterren 'Christmas Lullaby', 'Birjiña maite' edo Junkal Guerreroren 'Non degu non?' kantuak.



IPUIN-KONTALARIA

Milaka abentura ipuinen bidez

Asteartean, 4 eta 5 urteko haurrek istorio eta pertsonaia dibertigarriak ezagutu zituzten Pello Añorgaren ipuin kontaketei esker.

Besteak beste, Olentzerok animaliei zer oparitzen dien jakin zuten etxeko txikiek. Eta saioa amaiera emateko, haurrek oso gustuko duten 'Tontolapikoren' ipuina kontatu zien Añorgak.

BIKAIN ZIURTAGIRIA

Ttakun K.E.k urrezko Bikain ziurtagiria

Ttakun Kultur elkarteak urrezko Bikain ziurtagiria eskuratu du. Abenduaren 21ean, Gazteizko Europa jauregian egingo den ekitaldian, Iñigo Urkullu lehendakariaren eskuetatik jasoko du Ttakuneko ordezkariak batek ziurtagiria.

Bikain ziurtagiria Eusko Jaurlaritzak ematen duen euskararen kalitate ziurtagiria dugu. Honen bitartez, enpresa edo erakundeetan euskararen presentzia, erabilera eta kudeaketa egiaztatzen da. Hiru maila daude, urrea, zilarra eta beltza neurketaren puntuen arabera.

Istorio ilunak aztertzen

Irakurle txokoko lagunak 2015 urteko azken saioa izan zuten asteartean. Iolanda Zuñigaren 'Post-it bizitzak' aztertu zuten eta honetan dauden istorioen alde iluna eta garrantasuna nabarmendu zuten.

Baina hau egin aurretik, "bisitari" berezia izan zuten, Aitzol Iriondo euskal presoak. Grabaketa bidez, besteak beste, Aitzolek hilabete honetako liburuaren bere hausnarketa eskaini zien txokoko kideei.

Zozketa eta gidari aldaketa

Bestalde, Irakurle txokoa hilabete hauetan saldu dituen errifan zozketa ere egin zen. Zorteko zenbakia 419 da.

Hurrengo saioan Euskadi saria izandako 'Su Zelaiak' liburuari buruz mintzatuko dira Mikel Peruarena egilearekin. Hitzordua, urtarrilaren 26an izango da, Manuel Lekuona kultur etxean 18:30ean.

Berrikuntza bat ere izango da txokoa, Danele Sarriugarte idazlea izango baita hilabete batzuetan saioetako gidaria.



2 eta 3 urteko txikiek ipuin, jolas eta eskulanen bidez maitasuna landu zuten.



Festa eta kontzertuak herriko kale eta tabernetan zehar

Kalera Fest jaialdiaren lehenengo edizioa egingo da bihar

Lasarte-Oria kalera aterako da bihar. Eguberrien atarian, Kalera Fest musika eta kultur jaialdia antolatu dute. Goizeko 11:00etatik aurrera, eta ordu txikiak iritsi arte, ekintza ugari-ekin gozatzeko aukera dago. Goizean, gehienbat, haur eta nerabeei zuzendutakoak izango dira. Musika estilo askotako kontzertuak ikusi ahal izango dira arratsaldean, eta gauean DJ ugari girotuko dituzte tabernak. Festa egiteko Eguberrietara itxaron nahi ez duten guztiek badute aitzakia bihar Lasarte-Orian.

TXINTXARRI

Kaleak eta tabernak herri-tarrez beteko dira bihar. Kalera Fest jaialdia lehen aldiz ospatuko da Lasarte-Orian, eta mota guztietako ekintzak antolatu dituzte.

Esna Hadi Kultur Elkarteak antolatu du ekitaldia, zenbait taberna, elkarte eta Udalaren laguntzaz. Guztira, 50 entitate inguruk hartu du parte.

Lasarte-Orian ekintza kulturalak sustatzea du helburu Kalera Fest-ek. Bai kalean bertan baita taberna eta espazio komertzialetan ere. Bate-tik, "herriarren parte-hartzea bultzatzeko" eta, bestetik, alkateak esan duen moduan "ostalaritza eta merkataritza laguntzeko".

Goiz koloretsua

11:00etatik aurrera hasiko da festa. Haur eta nerabeei horra-irudiak margotzeko aukera izango dute. Antxota Elkarteak dinamizatuta, herriko artisten zirriborroak mural-etara eramango dituzte Okendo plaza atzealdean.

Graffiti-ekin esperimentatzeko aukera ere egongo da, herriko gune ezberdinetan zehar arituko baitira 'graffite-roak'.

Ordu berean, patinaje tailerra egingo dute Okendo plazan, Lasarte-Oriako APG Patinatzaile Elkartearen eskutik.

Eguerdi aldera, 12:00etatik 13:00era, zunba dantzatzeko parada egongo da Okendon, Lorena Garcia irakaslearen eskutik. Leku berean 6 eta 12 urte bitarteko haurrentzako jolas kooperatiboak antolatu ditu Ostarte Aisialdi taldeak.

Arkupe tabernan bermua hartuko dute Txalagore txalaparta taldeak girotuta.

Musika arratsaldean

Iriren Lagunak eskutik puzgarriekin gozatzeko dute haur eta nerabeei 16:00etatik 18:00etara Okendo plazan. 17:00etan Elurtza tabernan

Tonny magoaren emanaldia izango da.

Kontzertu eta musika eskaintza zabalago egongo da arratsalde osoan zehar.

13:30ean hasita, Oaintxe In Deu txarangak alaituko ditu herriko kaleak. Ordu horretatik eta 15:30ak bitartean, pintxo-potea egiteko aukera egongo da herriko zenbait tabernetan. Bazkaltzeko etxeratu nahi ez duenak badu aitzakia, beraz.

16:00tan, Kuadrillategi rezibatukada tailerra antolatu du. Birziklatutako materialekin batukada tresnak egingo dituzte, ondoren, kanta bat entseatzeko.

Dinbi Banda taldea arduratuko da 19:00ak arte perkusio erritmoekin herriarrak dantzatzeko.

Estilo askotako kontzertuak egingo dituzte, besteak beste, Okendo plazan, Landaberri Institutu aurrean (REM), kale Nagusian, Andatza plazan eta Sagardotegi kalean.

Liher eta Labrit bakarlarriak ariko dira 18:00etatik aurrera Okendon. Punk doinuek egurtuko dute Sagardotegi kalea, BHRoja, Arrotzak eta The Garax taldeen eskutik. Kale Nagusian, blues eta rock estiloak jorratuko dituzte Borjita Blues-ek eta Rock Kambrom-ek. Landaberri DBHren aurrean, 'Moshcore Crew' izeneko karpa jarriko dute. Hardcorea joko dute Drop, Lionhead, Keep Diggin eta Thanks To Losers taldeek.

Tabernetan ere zenbait kontzertu izango dira. Usoak tabernan The Roof eta Capitan Siz talde akustikoen emanaldia izango da 17:00etan. Buenetxean, 22:30etik aurrera Baton Rouge Brothers Blues arituko dira. Jalgi Kafe Antzokian, berriz, Ever Level metal bandak astindu araziko ditu buruak 23:00etan.

Gau luzea aurretik

Kontzertuak amaitzean, DJen txanda helduko da. Violadores del Verso hip hop talde famatuko kide den Sho Hai



Jaialdiaren antolakuntzan parte hartu duten eragile ezberdinen talde argazkia, aurkezpenean.

arituko da Abend Kafe Antzokia girotzen 00:00tan. Haren ondoren, Danel izango da plateren atzean. Garaia tabernan DJ Plan Kunta-Kunta egongo da Reggae-a ipintzen. DJ Manu 16VV-k, aldiz, punk girotuko du Trumoi eta Julen K DJ-ak Insausti elektronikaz.

Halaber, DJ Iker Gastesi ariko da Usoak tabernan, DJ Blami Siglo XX-n eta DJ Lucky Andatza plazan.

Entzun eta dantzatu behar-ean, abesteko asmoa duenarentzat karaokea antolatu dute Buenetxea tabernan.

Beste ostatu batzuetan ere, musika jarriko dute gau osoan zehar. Jaialdiko antolakuntzan parte hartu duten Elurtzak, Ilargik eta Mendi Kafe Rock-ek ohiko doinuekin girotuko dute gaua.

Kalean egotea nahiago duten horientzat Burrunba elektrotxaranga herriko kaleetan ariko da 22:30etik 00:30era.

Ostalaritza eta kultur eskaintza sustatuz

Alkate Jesus Zaballosek azaldu du "ostalaritza sustatzeko tabernetan bertan antolatu behar direla ekintzak". Izan ere, "herriko merkataritza berpizteko" zenbait proiektu abian jarri dituzte, baina azpimarratu du herriarrak denda eta ostatuera gerturatzea dela "gako".

Bestalde, antolatzaileek, "herriatik bertatik kultur eskaintzak antolatzea posible dela" nabarmendu dute.

Kalera Fest 19th Anniversary

Okendo	REM Landaberri	Sagardotegi plaza	Andatza plaza
"GORRI" aretoa	"Inaki Forja" aretoa	"J.M. CEREZO" aretoa	"INMA ONEKA" aretoa
MURAL MARGOKETA 11:00-13:00 (Haurak eta nerabeei)	KUADRILATEGI BATUKADA 16:00-18:00 Herrian zehar	BATON ROUGE BROTHERS BLUES 22:30-00:00 Buenetxea	ELECTROTXARANGA 22:30-00:30 Esna Hadi Kultur elkarteak
PATINAJE TAILERRA 11:00-12:00 Okendo	LIHER+LABRIT 18:00-20:00 Okendo	TONNY MAGOA 17:00-18:00 Elurtza	EVER LEVEL + DJ 23:00 Jalgi Rock
ZUMBA TAILERRA 12:00-13:00 Okendo	DINBI BANDA BATUKADA 18:00-19:00 Kalean zehar	Sho hai al CD session + Danel 00:00 Abend	DJ PLAN KUNTA-KUNTA 1:00 Reggae Garaia
HAURRENTZAKO JOLASAK 12:00-13:00 6tik 12. urtera Okendo	KONTZERTUA 22:00-23:30 Andatza plaza	DJ Manu 16VV 23:00 Trumoi punk	DJ Iker Gastesi 00:30 Usoak
GRAFFITY 11:00-13:00 kalean zehar	BHRoja + ARROTZAK + THE GARAX 19:00-23:00 Sagardotegi kalea	DJ JULEN K 00:00 Elektronika Insausti	DJ LUCKY 00:00 Andatza plaza
TXALAGORE+BERMU 13:30 ARKUPE	BORJITA BLUES BAND 19:00-22:00 Kale Nagusia	Rock/punk Ilargi	Rockabilly Rock&Roll Mendi kafe rock
Siglo XX AZOKA 11:00-18:00 Siglo XX tabernan	KEEP DIGGING++LION HEAD +DROP		
TXARANGA 13:30-15:30 KALEAN ZEHAR	THE ROOF+CAPITAN SIZ 17:00-18:30 Usoak		
PUZGARRIAK Iriren Lagunak Okendon			
16:00-18:00 (Haurak eta nerabeei)			

Antolatzaileak: Antxota Avenida Patinatzaile elkarteak Ostarte Oaintxe In deu Txaranga Lorena Garcia
Iriren Lagunak Kuadrillategi Txalagore Ertza Andatza Ilargi Usoak Dinbi Banda Buenetxea Moshcore Glp. Crew
Esna Hadi Kultur elkarteak Jalgi Abend Garaia Insausti Trumoi SigloXX Mendi Rock Arkupe Kebab
Laguntzaileak: Factory I.Urruzola Furgolarra Galiza Hiru aldeta Yolanda Izurde Belatz Furia Beltza
Cristaleria del oriz Inaki Taberna LavieGastroteka Timon Karaoke Fruteria Cecilia
Kaler Ebezarreta Lasarte-Oriako Udala

Kalera Fest jaialdiaren lehenengo edizioa kartela.

Antolatzaileek diotenez, aurtengo jaialdia ez litzateke aurtengo ekintza isolatua izan behar. "Asmoa, hasiera batean, urtero egitea da". Azpimarratu dutenez, "herriaren ekimen kulturalak garatzeko dinamika sortzeko helburuarekin" pentsatu dute Kalera Fest.

Horregatik, herriarrak

gonbidatu dituzte egun osoan zehar ekintzetan parte hartzera, eta "behar bada, datorren urtean antolakuntzako kide izatera".

Gabonak iristear direla, festa egiteko gogoia duenak aukera paregabea du bihar. 11:00etatik hasita, herria kalean izango baita ordu txikiak iritsi bitartean.



Kongresurako Gipuzkoako PSEko hautagai Odon Elorza eta Lasarte-Oriako Jesus Zaballos larrosak banatzen. EAJko Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki herritarrekin hizketan.

Bozkak lortzeko azken txanpan

PSE-EEko eta EAJko kideak merkatuan izan ziren herritarrei bozka eskatzen

Kongresurako eta Senaturako hauteskundeak atariaren bueltan direla, alderdi batzuetako ordezkariak bozkak bilatzeko azken ekintzak burutu dituzte Lasarte-Orian. Asteazkeneko merkatuan PSEko eta EAJko kideak egon ziren. Euren proposamenak eta ideiak partekatu zituzten herritarrekin, igandean euren babesak bilatze aldera.

Igandean, hilaren 20an, Espainiako Kongresu eta Senaturako hauteskundeak egingo dira. Kanpainaren azken txanpan direla, alderdi politiko batzuetako ordezkariak herritarren bozken bila

aritu ziren asteazkeneko merkatuan.

Elorza eta Eiguren

Ohi bezala, larrosak banatu zituzten PSE-EEko kideek. Alderdiko zinegotzi eta Lasar-

te-Oriako alkate Jesus Maria Zaballos bertan izateaz gain, erakundeko bi aurpegi ezagun izan ziren: Odon Elorza eta Jesus Eiguren.

Lehena, Kongresurako Gipuzkoako PSE-EEko hautagaia da, azken lau urteetan bertatik igarotakoa, eta aurretik Donostiako alkate izandakoa. Bigarrena, PSE-EEko presidente izan da 2002tik 2014ra eta Legebiltzarkidea 29 urtetan.

Egunotan, "Espainiako Gobernuaren eta Jaurilaritza-

ren arteko elkar ulertzea bultzatuko" duela azpimarratu zuten Elorzak.

EAJ

Lasarte-Oriako EAJko kide Estitxu Alkorta eta Jon Antxordoki ere merkatuan izan ziren. Informazioa eta hauteskunde opariak banatzeaz gain, bere alderdiaren programa azaldu zuten.

Kongresurako Gipuzkoako EAJko hautagai Joseba Agirretxeak "euskal autogobernua

defendatzeko biderik onena" bere alderdiari bozka ematea azaldu du azken astetan egindako agerraldietan.

Inkestak

Inkesta gehien arabera, Gipuzkoan EH Bilduren eta EAJren arteko lehia egongo da azken momentura arte, lehenek abantaila dutela. Ahal Dugu-Podemos eta PSE-EEk ere ordezkari izan lortuko lukete, eta baliteke PP kongresukide gabe geratzea.

Etorkizuneko hezkuntzari buruz hausnartzen

Herriko Xumela abesbatzako zuzendari Josu Txapartegi 'Txapas' zarauztarrak 'Ikastola 2050' izeneko liburua idatzi du. Astelehenean aurkeztu zuen lana, DBHko institutuko musika gelan. Hainbat herritar gerturatu ziren ekitaldira.

Aski ezaguna da Lasarte-Orian Josu Txapartegi 'Txapas'; Xumela abesbatzako zuzendaria da. Irakasle lanetan ere aritua da Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolan, jubilatze garaia iritsi zitzaion arte.

Hark beti dioen moduan, "jubilatua bai, baina erretiratu ez". Irakaskuntza utzia duen arren, hezkuntzaren mundua oso gertutik jarraitzen du Txapartegik; gai horrekin lotutako hainbat hausnarketa egin eta paperean jaso ditu. Erein argitaletxeak kaleratutako 'Ikastola 2050' liburuan bildu ditu koruko zuzendariak gogoeta horiek denak; astelehenean aurkeztu zuen liburua, herriko DBHko institutuko musika gelan. Herritar ugari gerturatu ziren ekitaldi horretara.

Irakasle zenaren garaira bueltatu zen 'Txapas'. Hainbat herritar gerturatu ziren

liburuaren aurkezpen ekitaldira, eta adi-adi entzun zituzten idazleak esandakoak. Amaieran euren gogoetak partekatu zituzten idazlearekin.

Etorkizuneko hezkuntza

Iraganean eta orainean oinarrituta, etorkizuneko hezkuntzari buruzko gogoetak bildu ditu Txapasek liburuan.

Ikastolen sorreraren garaia ekarri zuen gogora aurkezpenean, baita 1990eko Buesaren legea ere: "Ikastolen garai gogorrenetako bat izan zen hura; publiko edo pribatu izatea erabaki behar izan zuten, Buesak berak ezarritako irizpideei jarraituz". Orain indarrean dagoen LOMCE legegari buruz ere aritu zen eta, batez ere, azaldu zuen haren usteetan etorkizuneko hezkuntzak nolakoa izan behar duen.

Besteak beste, 'heziketa estetiko' delakoari buruz



Herritar ugari gerturatu ziren astelehenean 'Ikastola 2050' liburuaren aurkezpena. Xumela abesbatzako zuzendari eta Zarauzko Salbatore Mitxelena ikastolako irakasle ohi Josu Txapartegi 'Txapas'-ek idatzi du eta Erein argitaletxeak argitaratu.

aritu zen: "Umeek orekan hezi behar dute. Gaur egun '-ena' atzizkidun hitz asko erabiltzen ditugu haiek hezteko: Gehiena, handiena...elementuen arteko oreka hausten duten terminoak dira horiek, desoreka sustatzen dutenak. Elkarri lagunduz hazi behar dute hurrek".

"Euskaldunok eskubidea daukagu hezkuntza sistema

gure ikuspuntutik abiatuta eraikitze, munduko beste edozein naziok lez. Madriletik esaten digute nola hezi behar ditugun gure haurrak, eta hori ez da posible", aldarrikatu zuen Txapasek.

Bestalde, idazleak azpimarratu zuen ikastolen sarea eratzeko izan dela euskal kulturak "inoiz egin duen inbertsio onena".

Xumela koruaren hamargarren urteurrenaren harira antolatutako ekimena izan zen astelehenekoa. Etzi burutuko dute hurrengo Abend kafe-antzekoan, 19:00etan. 'Kapulana bat zintzilik' izeneko ekitaldia prestatu dute Ttakun KEREkin elkarlanean: Miren Amuriza bertsotan eta Mozanbikera egindako bidaiaz kontu-kontari ariko da.

LABURRAK.-

Gipuzkoako Kluben Kopan ariko dira Buruntzaldea IKTko igerilariak asteburuan

Zita garrantzitsua dute asteburu honetan Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek. Gipuzkoako Kluben Kopa jokatu dute, Bergaran. Iaz lortutako emaitza bikainak errepikatzen edota hobetzen ahaleginduko dira. Larunbat eta igandean zehar ariko dira.

Bergaran bertan aritu ziren hiru igerilari infantil pasa den asteburuan, teknifikazio saioetan parte hartzen: Nora Irazusta, Nahia Jie Villamediana eta Irati Arzalluz. Gustura aritu ziren denak, gaitasun desberdinak (biraketak eta erritmoa) jorratzeaz gain beste igerilari batzuk ezagutu eta egunerokotasunik atera zirelako egun batzuek. Benjamin eta alebinei dagokienez, maila bikaina eman zuten Oiartzunen zein Tolosan jokatuak sarietan; esperientzia pilatu eta konpetizio erritmoa hartzeko baliatu zituzten probak Buruntzaldea IKTko gaztetxoek.



Ostadar SKTren 2016ko bazkide kanpaina abian da

Datorren urtera begira bazkide kanpaina jarri du martxan Ostadar SKTk. Elkarteak jakinarazi duenez, kuotak mantendu egingo dira. 16 urtetik beherakoek 15 euro ordaindu beharko dituzte, 25 euro 17 baino gehiago dituztenek eta bazkideetza familiarra 40 eurotan egin ahalko da. Ostadarrek Geltoki Kanean duen bulegora joan beharko dute interesa dutenek, 18:00etatik 20:00etara bitartean.



Bazkide direnei eskerrak ematen dizkie Ostadarrek, "ezinbestekoa" baita haien ekarpena "kirol egitasmoak aurrera egin dezan".

Ur-festa Kiroldegian herriko gaztetxoentzat

Abenduaren 22an Kiroldegiko igerilekuan plisti-plasta aritzeko aukera edukiko dute 2005 eta 2011 bitartean jaiotako haurrek, 10:00etatik 12:00etara. Bazkide ez direnek 3,70 euro ordaindu beharko dituzte

DV txapelketako finalerako sarrerak eskuragai

Axier Arteaga herritarrek DV txapelketako finala jokatu du hilaren 23an, Zumarragako Beloki pilotalekuan, 18:00etan. Sarrerak 8 euro balio dute; 607 881 391 telefonora deituta aurrez hartu daitezke. ETB 4 katean zuzenean eskainiko dute norgehiagoka.

ATLETISMOA.-

Kirola eginez 2015a agurtu

Lasarte-Oriako I. San Silvestrea jokatu da abenduaren 31n

**San Silvestre lasterketa-
ren I. edizioa jokatu da
aurten herrian, hilaren
31n. Antolatzaileen esan-
etan, "oso harrera ona"
izan du egitasmoak
lasarteoriatarren artean:
200 pertsona baino
gehiago apuntatu dira
jada izena emateko epea
ireki eta bizpahiru aste
eskas pasa direnean.**



Astearte arratsaldean aurkeztu zuten lasterketa ofizialki, udaletxeko pleno aretoan.

IÑIGO GONZALEZ

Korrika egitea atsegin duten lasarteoriatarrek ez dute inguruko herritara joan beharko aurten San Silvestre lasterketan parte hartzera. Herriko lasterkari talde batek eta Texas Lasartearrak herrira ekarri dute proba; Lasarte-Oriako hainbat komertzioekin eta Udalarekin elkarlanean antolatu dute.

San Silvestre proba ez da soilik korrikalarietarako izango, Ipar Martxa kirolean aritzen diren hainbatek ere hartuko dute parte, makilak eskuetan hartuta. Antolatzaile taldeko kide Josu Galdosek azaldu moduan, "Gipuzkoa mailan Ipar Martxa modalitateko bigarren lasterketa" izango da abenduaren 31koa.

"Oso harrera ona" izan du egitasmoak herritarren artean, antolatzaileen hitzetan. Duela 2-3 aste ireki zuten izena

emateko epea; 200 korrikalari baino gehiago apuntatu dira tarte horretan. *Kirolprobak.com* atarian bete behar dituzte urratsak interesatuek, abenduaren 27a baino lehen. Bost euro balio du izena emateak eta 16 urte eduki behar dira gutxienez parte hartzeko.

Sarean nabigatzeko ohitura edo baliabiderik ez dutenek kultur etxean apuntatu ahalko dira, antolatzaileek jakinarazi dutenez. "Zehazteke" dituzte egunak eta orduak oraindik.

Okendo plaza, abiapuntu eta helmuga

Abenduaren 31n jokatu da proba, 16:00etan. Ordu erdi lehenago aurkezpen ekitaldia egingo dute, Okendo plazan. Bertatik aterako dira parte hartzaile guztiak eta bertan helmugaratu, 6,2 kilometroko ibilbidea egin ostean. "Ez da

beharrezkoa, baina parte hartzaileak animatu nahi ditugu ibilbidea mozorrotuta burutzera", adierazi zuten antolatzaileek astearteko aurkezpen ekitaldian.

"Herria koloreztatu nahi dugu, kirola eginez dibertitu eta ongi pasa. Ekimen herritarrak da %100ean; ez zaigu asko kostatu denok ados jarzea ideia aurrera ateratzeko", aipatu zuten Texas Lasartearrak kide David Mateosek.

Esker hitzak

"Herriko komertzio eta denda askok pozarren hartu dute egitasmoa, eta laguntzeko prest agertu dira lehen unetik. Eskerrak eman nahi dizkiegu horiei, baita Udalari eta lasterketa prestatzen ari diren guztiei ere, bolondres lana egiteko apuntatu direnei bereziki", esan zuten Mateosek.

KIROL AGENDA.-

FUTBOLA

Larunbata 19

Michelin, 14:00etan

Ostadar SKT - Martutene KE
Kadeteen Ohorezko maila,
14. jardunaldia.

Michelin, 15:30etan

Texas Lasartearra - Ikasberri KE
Erregionalen I. maila,
14. jardunaldia.

San Jose Obrero, Irun, 16:00etan

Dunboa Eguzki CD - Ostadar SKT
Jubenilen Ohorezko maila,
14. jardunaldia.

Rezola, Donostia, 16:30etan

Antigua Luberrri KE - Ostadar SKT
Erregionalen I. maila,
14. jardunaldia.

Michelin, 17:30etan

Ostadar SKT - Elgoibar CD
Erregionalen Ohorezko maila,
15. jardunaldia.

Igandea 20

Elbarrena, Zizurkil, 10:30etan

Danena Asteasu KE - Ostadar SKT
Kadeteen I. maila,
14. jardunaldia.

Michelin, 11:30etan

Ostadar SKT - Sporting de Herrera
Jubenilen I. maila,
14. jardunaldia.

Michelin, 13:15etan

Ostadar SKT - Zumaiaiko FT
Emakumezkoen Lurralde maila,
igoera fasea, 2. jardunaldia.

ARETO-FUTBOLA

Ostirala 18

Michelingo kirol gunea, 19:45etan

TSST - Ilargi Taberna

Michelingo kirol gunea, 20:45etan

Indaux - Urdaneta Hertz Klinika

Uzturpe frontoia, Tolosa, 20:45etan

Samaniego Orixe - Cecilia Ostadar
Gipuzkoako II. maila, 11. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 20:55etan

ISU Leihoak - Inter Kafetegia
Gipuzkoako I. maila, 11. jardunaldia.

Larunbata 19

Michelingo kirol gunea, 9:15etan

Viña del Mar - Izkiña

Michelingo kirol gunea, 10:15etan

Also - Trumoi

Michelingo kirol gunea, 11:15etan

Txoko - Txindoki

Michelingo kirol gunea, 12:15etan

Kattagorri Insausti - Ref. Lagunak

Igandea 20

Urreta kiroldegia, Galdakao, 18:00etan

Lagun Onak FS - Ostadar Antonio
3. Nazionala, 11. jardunaldia.

SASKIBALOA

Ostirala 18

Majori kiroldegia, Ordizia, 20:00etan

Ordizia KE - Ostadar SKT
Senior mailako 3. probintziala,
11. jardunaldia.

Larunbata 19

Bikuña kiroldegia, Legazpi, 11:15etan

Andraitz KE - Ostadar SKT
Partizipazioko kadete neskek,
3. jardunaldia.

Udal Kiroldegia, 16:00etan

Ostadar SKT - Askatuak
Errendimenduko junior neskek,
12. jardunaldia.

Paco Yoldi kiroldegia, Donostia, 16:00etan

Bera Bera Gros - Ostadar SKT
Errendimenduko kadete neskek,
12. jardunaldia.

Axular Lizeoa, Donostia, 16:00etan

Saskiaxular - Ostadar SKT
Partizipazioko junior neskek,
11. jardunaldia.



ERRUGBIA

Larunbata 19

Kote Olaizola, Donostia, 16:00etan

Bera Bera RT - Babyauto Zarautz
Ohorezko B maila, 12. jardunaldia.

Igandea 20

Asti, Zarautz, 11:00etan

Lavie ZRT-Beltzak - Arratiko Zekorrak
Euskal Ligako II. maila, 8. jardunaldia.

IGERIKETA

Larunbata 19/Igandea 20

Agorrosin kiroldegia, Bergara

Buruntzaldea IKTko infantil, junior eta absolutuek Gipuzkoako Kluben Kopa jokatu dute.

PILOTA


Asteazkena 23

Beloki pilotalekua, Zumarraga, 18:00etan

Axier Arteaga, Daniel Murgiondo-Xabier Urbietza, Ibai Arratibel.
Bankoa-DV txapelketako finala.

Agenda

Larunbata, 18:30ean, Manuel Lekuona kultur etxea



Iraganeko Lasarte-Oria gogoan

"Gogoratzen duguna gara" argazki bidezko Lasarte-Oriaren atzera begirakoa, Julian Sagardiak egina. Honi Zero Sette orkestrak zuzeneko musika jarriko dio. Lasarte-Oriako iraganaren 300 bat argazkiko emanaldia izango da. Besteak beste, kale, denda, jai, hainbat pertsonaia eta kirol ekimen ezberdinetako irudiak ikusiko dira. Doako emanaldia. Sarrera Manuel Lekuonako lehiatilan eskuragarri.

gai izango da. Urritasuna duten pertsonen nazioarteko egunaren harira.

Eguberrietako Haur parkea

MICHELINGO UDAL KIROLGUNEA/BITARTE TENIS PISTA

Abenduaren 20etik 31era

Haurren gozamenerako Eguberrietako Haur parkea izango da. Puzgarriak, bideo jokoak, tailerrak... denetarik izango da etxeko txiki eta gazteek ederki gozatzeko. Abenduaren 24 eta 31ean goizez izango da irekia, abenduaren 25ean itxia egongo da. Sarrera helduek 1 euro.

MICHELINGO UDAL KIROLGUNEA

Asteartea 22, 19:00etan

"Amona Josepa" ikuskizunaz gozatu ahalko dute haurrek.

Lasarte-Oria

Zinea

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Ostirala, 22:00etan

Okendo Zinema Taldearen zine forum atalean "Calvary" filma ikusgai izango da. Sarrera 5,50 euro.



Lasarte-Oria Kalera Fest

LASARTE-ORIAKO KALEETAN ZEHAR

Larunbata, 11:00etatik aurrera

Lasarte-Oria Kalera Fest jaialdia antola-

tu da. Herriko taberna, kaleetan zehar eta Okendo plazan hainbat ekintza antolatu dira, hala nola kontzertuak, tailerrak edo jolasak.

Musika

BRIGITARREN KOMENTUA

Larunbata, 20:30etan

Alboka Abesbatzak eguberrietako abestiez osatutako emanaldia eskainiko du. Sarrera doakoa.

MANUEL LEKUONA KULTUR ETXEA

Asteazkena 23, 20:00etan

"Soulshine Voices" taldeak gospel emanaldia eskainiko du. Laukote frantsesak ohiko gospel abestiak eta blues, jazz, funk edo soul kutsua duten doi-

nuak ere eskainiko ditu. Sarrera 5,50 euro.

Bertsoak

ABEND KAFE-ANTZOKIA

Igandea, 19:00etan

Miren Amurizak 'Kapulana bat zintzilik' emanaldia eskainiko du. Sarrera 5 euro. Asteazkenetik aurrera eskuragarri Jalgi eta Abend kafe-antzokian.

Erakusketa

ANTONIO MERCERO GUNEA

Abenduaren 3tik 18ra, 17:30etik 19:30era.

Jalgune elkartearen "Elkar sentitu eta emozioak handitu!" erakusketa ikus-

San Tomas eguna

OKENDO PLAZA

Astelehena 21, 17:00etatik aurrera

San Tomas eguneko azoka izango da Okendo plazan. Txistorra eta taloez gain, Ttiriki Ttarraka eskolako lagunak, Xumela korua eta bertsolariak izango dira.

Olentzero

KALEJIRA/OKENDO PLAZA

Osteguna 24, 17:00etatik aurrera

Lasarte-Oriako kaleetatik barrena kale jira egin ostean, Olentzerori harrera egingo zaio Okendo plazan. Olentzero, Mari Domingi, Xixuko, Porrotx eta hainbat lagunek parte hartuko dute ekitaldian. Ostean, Olentzero, Mari Domingi eta Xixukok eskutitzak jasoko dituzte.

Herritarren txokoa

Erketz EDT Olentzero

Urtero legez Erketz EDTK abenduaren 24an baserriz baserri abesten aterazera gonbidatzen zaituztete. Ainhoa tabernatik irtengo da dantza taldea 15:00etan.

Gabon kanten entsegua abenduaren 23an izango dute arratsaldeko 20:00etan, Zumaburuko eskolako lokalean.

Zabaletako Olentzero

Zabaletako Olentzero abenduaren 24ean aterako da 10:00etan auzoko plazatik.

Bilera eta entsegua bezperan, hilaren 23an, egingo da plazan. Arratsaldeko 19:30ean.

Landaberriko Jaialdiko zozketa

Abenduaren 12an Landaberriko Jaialdian zozketan saritutako zenbakiak hauek dira: 3032, 0373 eta 1226.

Sariak jasotzeko epea abenduaren 28an amaituko da.

Institutuko Gabonetako saskia

Lasarte-Usurbil Bigarren Hezkuntza Institutuak Gabonetako saskia zozketatu du. Hona hemen zenbaki irabazlea: 1038.

Odol-ateratzea

Hilabeteko azken astelehenean abenduaren 28an, eman ahal izango da odola Osasun Zentroan, arratsaldeko 17:30etik 20:30era.

Anima zaitetze, odola ordezkazina da eta odol falta dago!

Maria Auxiliadoraren omenezko meza

Zumaburuko Arantzazuko Amaren elizan Maria Auxiliadoraren omenezko meza ospatuko da, abenduaren 22an, asteartea, arratsaldeko 17:00etan.

Lasartearra elkarteko loteria

Lasartearra elkarteak jakinarazi du aurtengo gabonetako loteria, 57.898 zenbakia, bazkideen eskura dagoela.

Sarean

Kameratoiak baditu sarituak

Durangoko azokaren barruan egin zen XI. Euskal Herriko Ikus-entzunezkoen rallyak baditu irabazleak.

Izena emandako 20 taldetatik hamazazpi heldu ziren Kameratoiaren erronkan azkeneraino. 'Eusk.aroa' izan da aurten lehiakideei eman zaien gaia; 50 ordu izan dituzte beraien film laburrak egin eta Topaguneari entregatzeko.

Abenduaren 8an sari banaketa gala egin zen eta bertan ikusi ziren jasotako 17 lanak.

Epaimahaiak bertan, publikoarenekin batera ikusi zituen lehendabizikoz film labur guztiak eta hamar minutuko tartea besterik ez zuten izan lanak baloratu eta irabazleak zeintzuk ziren erabakitzeke. Bitartean, sari banaketara hurbildu zirenek beraien bozka eman zuten, publikoaren saria nork eramango zuen haien esku baitzegoen.

"Kameratrola" izan zen ikusleei gehien gustatu zitzaiena, "LPM eta lagunak" Oñatiarren lan umoretsua. Beraiek eraman zuten XI.Kameratoi honetako 3. saria (TOKIKOM saria) ere, epaimahaiaren esanetan "umorea ere euskararen parte dela erakustearren". Bigarren saria "Irudien aroak" lanak irabazi zuen, "Sant Antonitarrak" taldeak "irudiaren eta denboraren artean egiten duen jokoagatik" besteak beste. Lehen saria, berriz, Uda films talde gaztearen "Jorrai" lanari eman zion epaimahaiak "ikuspegi original eta ikus-entzunezko tratamendu azpimarragarri batekin gogorazten digulako euskara eta euskal kultura landu eta zaindu behar direla".



Zuen oharrak jarri, kexak adierazi edo eskutitzak argitaratzeko:
Geltoki kalea, 4 943 366858 txintxarri@txintxarri.info

Dena prest San Tomas azokarako

Astelehen arratsaldean, txerria, txistorra, taloak, pintxoak eta musika Okendo plazan

San Tomas azoka baserritarrak haien produktuak saltzeko Donostira joaten ziren eguna dugu. Jai handiko eguna izaten da hiriburuan, baina Lasarte-Orian ere, azken urteetan herritar ugari bildu da hitzordu honetan. Horregatik, aurten ere abenduaren 21ean, astelehenean, arratsaldeko 17:00etatik aurrera euskal giroko azoka izango da gurean.

Eguberriak ate joka ditugu eta hauen atari San Tomas eguna dugu. Astelehenean, azken urteetan arrakasta handia izan duen azoka antolatuko du Ttakun KEk.

Aurten, azken bi urteetan ez bezala, arratsaldez izango da hitzordua Lasarte-Orian. Euskal giroak arratsaldeko 17:00etatik aurrera hartuko du Okendo plaza.

Urtero legez, azokako erregina den txerria eta txerri-kumeak ikusteko aukera izango dute etxeko txiki eta ez hain txiki plaza erdian.

Honetaz gain, Donostira hurbildu ezin izan direnek edo jaiarekin jarraitu nahi dutenek, zer jan edo edan izango dute plazan, baita musika ere.

Postuak

San Tomas azokan, hainbat postu izango dira janaria,

edaria eta beste hainbat produktu eskaintzen.

Batetik Ttakun K. E.-k txistorra edo txokolatetz barrubeteko talo eta gaztaina gozoak izango ditu salgai eta hauei laguntzeko sagardo dastaketa doan.

Herriko elkarte edo herri-taren postuak ere izango dira. Alboka abesbatzak tortila eta txistorra pintxo eta bokatatxo gozoak jarriko ditu eta Lasarte-Usurbil Institutuko gazteek pintxo potea eskainiko dute. Landaberriko DBHko gazte-txoek, berriz, motxilak salduko dituzte. Institutuko eta DBHko gazteek ikasturte amaierako bidairako dirua bilduko dute.

Talo tailerra

Etxeko txikiak haiek egindako taloak jateko aukera izango dute arkupeetan izango den talo tailerrari esker.

Antolatzaileek ohartarazi dutenez, 4 eta 12 urte arteko



San Tomas azokako txerri eta txerri-kumeek ikusmira handia sortzen dute urtero. Haur zein helduek ikusi nahi dute.

haurrei zuzendua dago batez ere ekintza. Gainera, txikiak heldu baten lagunduta joan behar dutela gogorarazten dute.

Musika eta bertsoak

Lehen ordutik giroa izango da, baita dantzan egiteko aukera ere.

17:30ean, Ttiriki Ttarraka musika eskolako lagunek erromeria doinuak eskainiko dituzte.

18:00etan, bertsolarien txanda izango da eta

18:30ean, Xumela korua igoko da oholtzara euskal kantak eskaintzera.

Azkenik, 19:00etatik aurrera plaza dantzako saioa izango da.

Honetan Ttakun K.E.ko plaza dantza ikastaroko, Erketz EDT-ko eta Kukukako lagunak izango dira.

Antolatzaileek azpimarratu dutenez, adin guztiei egokitutako saioa izango da, eta inoiz dantzarik egin ez duenak ere aukera izango du bere lehen pausoak emateko.

Izan ere, maila baxuko dantzak izango baitira egingo direnak, hala nola, txulalai edo Zazpi jauzi.

Euskal jantzia

Bestetik, antolatzaileek postuetako kideei gogorarazten diete, postuak girotua egon behar duela eta harrera behintzat euskaraz egin behar dela.

Era berean, Ttakun KEk herritarrei gonbita egiten die euskal jantzia armairutik atera, jantzi eta azokaz goza dezaten.

Eguberrietan oparitu euskarazko produktuak

Urteko garai honetan seme-alabei edo inguruko ei euskarazko liburuak, musika edota jokoak erosi eta oparitzeko aukera paregabea izaten dela kontuan hartuz, Euskarazko Produktuen Katalogoaren edizio berria osatu dute Euskal Herriko 140 bat udal eta mankomunitatetako euskara batzordek, tartean Lasarte-Oriakoak.

Erabilgarri eta probetxugarria

Gurasoentzako eta 12 urte bitarteko haur eta gazteentzako ehunka erreferentzia bilduzen ditu edizio berri honek.

Merkatuan dauden produktuen artean hautaketa egin da, berritasuna, egokitasuna eta kalitatea kontuan hartuta. Eta zazpi ataletan sailkatuta jaso dira: musika, liburuak, aldizkariak, DVD filmak, jostailu eta jokoak, komikiak eta gurasoentzako produktuak.

Gainera, produktu bakoitzaren gutxi gorabeherako prezioa ematen da, eta zen-



Gabonetako festetan oparitzeko proposak diren hainbat euskarazko eta kalitatezko hainbat produktu aurki daitezke katalogoan.

bait ataletan adinaren arabera banaketa egiten da.

Honetaz gain, katalogoaren azken orrialdeetan haurrek jolasteko tartea ere badute. Honetan 7 desberdintasunak, hizki-zopa edo laberinto bat

Edizio digitala berrituta

Paperekoaz gain, [\[logoa.eus\]\(http://logoa.eus\) webgunea berrituta aurkituko duzu, mugikor eta tabletetara egokitua.](http://www.kat-</p>
</div>
<div data-bbox=)

Orrialde berriak diseinu berrituaile du eta beste hainbat osagai interesgarri ere baditu.

Era berean, idazle, musikari, filmagileekin egindako elkarrizketak, haien inguruko albisteak, nobedadeak, iri-

tziak, ikusi eta irakurtzeko aukera izango duzu webgune berrituan.

Produktu gehiago

Bertan, paperean jasotako produktuez gain, merkatuan aurki daitezkeen beste asko agertzen dira.

Aukera dago, gainera, argitaletxearen denda birtua-

lera iristeko produktuaren gainean klik eginez eta, nahi izatera, begiz jotako produktuaren erosketa etxetik egiteko.

Urte osoan bizirik eta eguneratua dagoen gunea da www.katalogoa.eus, argitaletxeek beraiek aukera baitute produktu berriak zuzenean sartzeko merkaturatu ahala eta deskatalogatuak gelditu direnak kentzeko.

Hartara, webgunea urte osoan kontsulta daiteke, eta informazio berria eta interesgarria aurki daiteke bertan.

Produktuen bilaketa azkarrak egiteko aukera ere baduzu, adinaren, prezioaren nahiz beste ezaugarri batzuen arabera merkatuan dauden produktuak aurkitzeko.

120.000 ale

Paperezko edizioari dagokionez, aurten 120.000 ale inguru banatuko dira Euskal Herri osoan.

Lasarte-Orian haur eta nerabeak dauden etxeetara bidali da, esate baterako.